

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

303 - 2022ko EKAINA

GERRATIK
IHESI,
BAINA
ETXEAN
BEZALA



OMENALDIA ZUMETARI

Jose Luis Zumeta margolariak bere bizitzaren eta obraren parte handi bat Araitz ibarrean errotu zuen. 2020an zendu zen, eta araitzarrei eta Araxes eskolakoiei omenaldi bat egitea bururatu zitzaien. Zumetak eskolako hurrekin hainbat tailer eta elkarlan egin zituen, eta, esker onez eta omenaldi gisa, horma irudi bat margotzea izan zen ideia.



Horretarako, Araxes eskolako ikasleen artean, Zumetaren lana oinarri, hainbat margolan egin eta bat aukeratu zen, Usoa Zumetaren laguntzaz. Horma irudiaren margoketa Iker Uribe muralgileak egin du. Hona hemen emaitza.



MAILOPE

- MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

- ARGITARATZEN DU: Mailope Kultur Elkartea. L.G.: NA 719/93 Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik. issuu.com/mailopealdizkaria

- ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

- ARGAZKIAK: Iker Uribe, Ondare Kultur Taldea, Lekunberriko Udala, Silvia Otermin, Yulia Kornienko, Joxe Mari Zabaleta, Printza, Arantxa Mikeo, Tximuutxe, Olatz Altuna, Ander Elizalde, Fraisoro Eskola, Labrit.

- PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

- MAKETAZIOA: Mikel Urriza eta Oroitz Zabala.

- TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

AURKIBIDEA

04 ▶ **KUXKUXEAN** Ekaineko zorion agurrak.

08 ▶ **IZAN GAZTE** Sexu-transmisiozko eritasunak (II).

09 ▶ **ELKARRIZKETA**



Yulia Kornienko

12 ▶ **BATZARRE**

14 ▶ **ERREPORTAJEA**



Eraso matxistei erantzuteko protokoloa.

20 ▶ **KULTURA** Ipuin lehiaketa.

22 ▶ **KIROLA** Urrezko Banakako Aizkolarien Finalerdia.

24 ▶ **EMOZIOEN MUNDUAN** Beldurrak.

26 ▶ **ERREPORTAJETXOA** Latxa ahari enkantea.

28 ▶ **PLAZATIK PLAZARA** Fraisoro Eskola.

31 ▶ **AGENDA**


Zuriñe eta Goreti Estanga Jareño.

Ekainaren 30ean, 12 urte.
Ekainaren 16an, 9 urte.
Zorionak bikote!! Ongi pasa dezazuela zuen urtebetetze eguna, segi irrifartsu eta zoriontsuak izaten.
Muxu pottolo etxekoen partez.

Amalur Bravo López
Maiatzaren 19an, 10 urte.
*Zorionak, 10 urte bete dituzu!!
Lagun eta familiarekin batera egun polita pasaz izana espero dugu.*
Askok maite zaitugu, muxu handi bat etxekoen partez.



Leire Eleta Egaña
Ekainaren 24an, 8 urte
Zorionak maitia!
Muxu handi bat etxeko guztien partez!!



Leire Intxaurren García
Maiatzaren 30ean, 23 urte.
Zorionak polita! Gozatu zure eguna, merezi duzu eta!
Muxu handi bat etxeko guztien partez.



Carla García Hernando
Ekainaren 14an, 4 urte.
Zorionak maitia.
Segi zure irribarre polit horrekin.
Muxu handi-handi bat etxekoen partez.
Maite zaitugu!

Lorea Elizondo Otamendi
Ekainaren 9an, 5 urte.
Zorionak Lorea!!
Oso ongi pasa zure egunean. Muxu handi bat Oier, aitatxo eta amatxoren partez!!



Eneko Oreja Altuna
Ekainaren 23an, 11 urte.
Urte askotako txapeldun!!
Segi beti bezain bizkor ta alai!! Muxu handi bat denon partez!!!



Kaiet Eskamendi Goikoetxea
Ekainaren 16an, 8 urte.
Zorionak Kaiet! Oso ongi pasa eguna eta muxu handi bat familia guztiaren partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Orduetgia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com


**SABOTAJEA
HIRUZUBIDEN**

Hiruzubide eremuan orain dela gutxi jarritako seinalea hautsita agertu da, Mugiron. Ondare Kultur Taldeak bultzatuta jarri zuten orain dela gutxi seinale hori, Iturraskarriekin, Mugiroko Kontzejuarekin eta Larraungo Udalarekin elkarlanean. Uste dute sabotaje bat egin nahi izan dutela, eta aizkora bat erabili dutela postea zatitzeko. Mugiroko Kontzejuak eta Larraungo Udalak salaketa jarriko dute.


**120.933 EUROKO
SUPERABITA**

Lekunberriko Udalak adierazi duenez, 2021eko kontuen bilakera positiboa izan da: 120.933,31 euroko superabitarekin itxi dute. Hala, udala zorrak jaisten ari da oraindik; hain zuzen, urtean 200.000 eurotik gora. Lekunberriko Taldearen aldeko botoekin eta EH Bilduren kontrako botoekin onartu dituzte kontuak. Zorpetze maila %8,57koa da, muga %18koa denean.


**BARATZEA
EGUNEKO ZENTROAN**

Udaberri garaia izanik, baratzeak martxan jartzeko ordua ere bada, eta Lekunberri Larraun Eguneko Zentroan baratze bat jarri dute, zentroaren kanpoaldean. Erabiltzaileak gogotsu aritu dira haziak eriten eta landareak lurrian sartzten; ea lurrak zer ematen dien! Zentro hori baliabide soziosanitarioa da, egunean zehar adinekoei arreta integrala ematen diena.

► Ibon Barberia (Arruitz)


Sukalde guztietan badute balore eta gure ahotan handia zapore Eguzki ta euritan izkutun dotore larre berdeei die ematen kolore maiatzeko ziza ta maiatzeko lore.

Doinua: *Hamalau heriotzena*. Hurrengoa: Xanti Saigos (Lekunberri)

JOXE MIGEL BARANDIARAN

Hogeigarren mendeko azken hamarraldian, ikusita Iruñeko Udalean gai batzuk oso astiro zihoazela, esate baterako, arkitektura oztopoak kentzeko zeregina, ba, batzuetan ekimena nire aldetik hartzen nuen.

Ohartuta nengoen, garai hartan, urtean, gutxi gorabehera, hogeita hamar bat beheragune egiten zituela udalak, gehiagorik ez, espedientea betetzeko, segur aski, eta, haietatik, guztiak ez oso ongi bukatuak. Gauzak hala, non edo non, Iruñeko kaleen plano bat eskuratu, eta, hartan hasi nintzen apuntatzen eta markatzen, Nafarroako hiriburuan, egiteko falta ziren beheraguneak. 2.000 pasatxo atera zitzaizkidan. Orduan, hiruko erregela xume bat eginez, ondorioztatu nuen, martxa hartan jarraituz gero, hirurogeita hamar bat urte kostatu behar zitzaizkiela, gutxi gorabehera, denak egitea, eta, hura, ez zitzaidan batera bidezkoa iruditu. Horregatik, handik egun batzuetara, baimena eskatu nuen udaleko hirigintza batzorde batera joateko, eta, oso ongi gogoratzen ez badut ere nola egin nuen, kontua da hitzordu hura lortu nuela, eta, tokatzen zen egunean, hantxe nintzen ni prestu, nire azalpenak emateko, hirigintza batzordeko zinegotziei, bukaeran, entzun nahi zituztenentzat, noski.

Jakina den bezala, inor ez zegoen behartuta ni entzutera gelditzeko, soil-soilik interesa zutenak geratu ziren. Nik uste dut, alkateak eta bere alderdikoez hanka egin zutelara, eta, seguru asko, bakar-bakarrik geratuko ziren oposiziokoak. Hura hala, hirigintza batzordeko gai zerrendako puntu guztiak tratatu zituztenean, iritsi zen nire txanda; apenas ezagutzen nuen zinegotzi bat edo beste.

Baina, bueno, hitz egiteko nire momentua iritsi zenean, aurrean nituen zinegotzi jaun-andre guztiei, hiruko erregela xumearen azalpen eta arrazoiketa egin nien, beheraguneen kontu eta kopuru guztiak aipatu ondoren.

-Ez dakit konturatzen zareten, baina martxa eta abiadura hauek jarraituta, Iruñeko beheragune guztiak egin orduko, behetik jota, hirurogeita hamarren bat urte pasatuko dira, eta, une horretarako, nik ia-ia Joxe Migel Barandiaranen adina izanen dut. Zuek esanen didazue hori bidezkoa eta egokia iruditzen zaizuen ala ez -planteatu nien astiro, baina erabakitasunez.

Hura entzunda, han zeuden zinegotzi gehienak harritu eta lotsatu egin ziren, eta, berehalaxe esan zuten ezin zela erritmo hartan jarraitu; zerbait aldatu beharra zegoela, onerako.

Handik urte askotxotara, zinegotzi haietako baten batek, oraindik gogoratzen zuen pasadizo goibel eta triste hura.

Xanti Begiristain Madotz (Auritz)

OIERREN GOLIK ONENA

Egun, bisita egitera etortzen zaigunean, bat gehiago da. Tira, egiari zor, bat gehiago ez da. Araitzera edo Betelura gerturatzen denean, gaztetxoentzat eta hain gazte ez direnentzat ere, Oier Sanjurjo Mate erreferente eta inspirazio bat da.

2012an, bere izena zeraman lagunarte bat sortzeko proposamena egin genionean, Oier, erdilari on baten moduan, zuen guztiarekin sartu zen egin genion erdiraketa hura errematatzera. Berak bakarrik dakien moduan egin zuen, eta profesional izatetik haratago doan norbaitekin topo egin genuen: lehen taldean ibilbide luzea zuen harrobiko jokalaria eta Montilivin lortutako igoeran malkoei eutsi ezinda zegoen Osasuna-zalea. Eta gu bezala, euskalduna.

Ordutik, bere esku zegoen guztia egin du gure helburua bete zedin: Osasunako kamiseta gehiago ikustea gure kaleetan, beste taldeetakoak baino gehiago.

Bagenekien eskutik gindoazela. Bagenekien, gure artean inork ez baitzuen zalantza egiten bere lider izaeraz edo taldearekiko zuen konpromiso apurtezinaz. Halere, jokaldi on bat izan zitekeena Oierrek bere ibilbidean sartu duen gol onenatariko bat bihurtu da. Eta Oierren golei buruz badakigu zerbait, sartu duen gol bakoitzeko gazta bat oparitu baitiogu...

Jokaldi honetan jarritako kalitate ukitua dagoen onena da: giza kalitatea. Egiten digun bisita bakoitzean nabari zaiona, min hartuta dagoen jokalaria gaztetxo bati edo ebakuntza gelatik pasatu behar izan duen osasunzale beteranoari bidalitako animo hitzetan WhatsApp zorionekoa! nabari zaiona. Sekula falta izan ez diren mezuak. Betirako gure kapitaina izango denaren bisitak gure bailara gorri tindatzen laguntzeko erabakigarriak izan dira.

Josetxo Zubillaga.

Araitz-Beteluko Oier taldea.
Oharra: Oier, Getaferen aurkako golaren gazta zor dizugu.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

“ERREFUS TXAPELKETA”
“LA RESTO COPA”

ERREFUSA MURRIZTEAK SARIA DU RESTAY GANA

ERREFUSA MURRIZTEAK SARIA DU
183 Udalerri nor baino nor arituko dira 2 hilabetean “errefus” gutxiago nor belduko.
2022ko MAIATZAREN 2tik UZTAILAREN 2ra
GUTXIAGO EDUKIONTZI BERDEAN ETA GEHIAGO URDINEAN, HORIAN EDO MARROIAN
- GUTXIAGO GEHIAGO DA+

REDUCIR LA FRACCIÓN RESTO, TIENE PREMIO
183 Localidades competirán por ser las que menos cantidad de residuo “de resto” recojan en 2 meses.
DEL 2 DE MAYO AL 2 DE JULIO DE 2022
MENOS AL CONTENEDOR VERDE Y + AL AZUL, AL AMARILLO O AL MARRÓN
- MENOS ES MÁS +



“Sexu-transmisiozko infekzioa dut” (II)

Etxarri-Aranazko Sexu eta Ugalketa Osasuna Artatzeko Zentroko kideen laguntzarekin.

Aurreko alean sexu-transmisiozko infekzioei buruz aritu ginen; oraingo, berriz, honetan hedatuen dauden gaixotasunen sintomak ezagutuko ditugu.

8

KLAMIDIOSI

ZER DA? Sexu-transmisiozko infekzioa, Chlamydia trachomatis bakterioak eragiten duena. Ohikoena da Nafarroan.

SINTOMAK. Jeneralean ez du sintomarik izaten, eta, horrenbestez, jakin gabe eduki eta kutsa daiteke. Sintomak daudenean, arriskuzko jardunbidearen ondoren bizpahiru astera ere ager daitezke:

- Normala ez den baginako fluxua.
- Zakiliko jario argi eta gardena.
- Jarioa, mina ondestean edo eztarrian.
- Erremin-sentsazioa txiza egitean.
- Mina koitozko sexu-harremanak izatean.

Ez bada tratatzen, emakumeen kasuan pelbiseko gaixotasun inflamatorioa eta antzutasuna eragin dezake.

SENDABIDEA. Garaiz tratatzen bada, antibiotikoak hartuta sendatzen da.

GONORREA

ZER DA? Sexu-transmisiozko infekzio arrunta, Neisseria Gonorrea edo Gonococo bakterioak eragindakoa.

SINTOMAK. Batzuetan, ez du sintomarik eragiten, edo oso arinak izaten dira eta beste infekzio batzuekin nahasten dira: • Baginako fluxuak areagotu egiten dira edo zakileko jario horixka, zuria, berdea edo odolduna izaten da. • Mina txiza egitean. • Odoljarioak hilekoaren aldien artean. • Azkura, mina, jarioa uzkiean edo mina kaka egitean.

Ez bada tratatzen, prostatan eta barrabiletan arazoak eragin ditzake gizonen kasuan, eta pelbiseko gaixotasun inflamatorioa, arazoak haurdunaldian eta antzutasuna, emakumeen kasuan.

SENDABIDEA. Antibiotikoak hartuta sendatzen da.

SIFILISA

ZER DA? Sexu-transmisiozko infekzioa, Treponema pallidum bakterioak eragiten duena.

SINTOMAK. Faseetan izaten du bilakaera: • Sifilisaren etapa goiztiarrean, zauri bakar bat agertzen da, txikia eta minik ematen ez duena, kontaktuko gunean, genitaletan, uzkiean eta/ edo ahoan. Batzuetan ezin da ikusi. • Ez bada tratatzen, jeneralean larrazaleko erupzio bat eragiten du, minik ematen ez duena, aurpegian, bularraldean, bizkarrean, esku- edo oin-azpian. Tratatu gabe jarraitzen badu, gerta liteke hainbat urtean desagertzea eta gero oso larriak diren sintomen bidez agertzea berriro (itsutasuna, paralisia...).

SENDABIDEA. Garaiz tratatzen bada, antibiotikoak hartuta sendatzen da.

GIBa eta hiesa

ZER DA? Sexu-transmisiozko infekzioa edo odol bidezko transmisiozkoa, giza immunoeskasiaren birusak (GIB) eragindakoa.

SINTOMAK. Hasieran, pertsona-portzentaje handi batek ez du sintomarik izaten. Beste batzuek sukarra, gongoilak handituta, buruko mina edo ondoez orokorra izaten dute. Denborarekin, gerta liteke hiesa garatzea. Sindrome horretan, organismoaren defentsa-sistemak huts egiten du eta ondorioz ekartzen du hilgarriak izan daitezkeen infekzioak eta minbiziak garatzea.

SENDABIDEAK. Nahiz eta ez den sendatzen, garaiz tratatzen bada, birusa arrastoon sartuta eduki liteke eta bizi-kalitate ona eta bizi-itzaropena izan, gero eta hobek diren sendagaiak erregulartasunez hartuta.

9

Zuregatik eta gainerakoengatik, gozatu arduraz, erabili kondoia!

Iñigo Garaioa MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

German Lasarte HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK
Granja Martikonea, GANTZA, Nafarroa
Jabi: 649 472 957 + locuna: 660 511 097
Malloak.com | info@malloak.com

GALBURU
okindegia - panadería
Egur-labean egina!
Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

Construcciones Gañarbe
ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK
Oztegin kalea 2, Lekunberri
construccionesganarbe@gmail.com
616 457 540
636 827 846

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO
Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

“Gerraren hasieran izan zen gogorrena, ezustean harrapatu gintuelako”

Martxoaren 15ean etorri zen Yulia Kornienko ukrainarra Lekunberrira, hemengo familiaren babespera, Poloniako mugatik. Kievetik 38 kilometrora bizi dira, eta etxetik lau kilometrora dagoen base militarri eraso zioten otsailaren 24an; orduan konturatu ziren gerraren larritasunaz. Pozik dago Lekunberrin, baina gurasoak ikustearekin amets egiten du.

Zer moduz zaude?

Ongi gaude. Aita eta ama ongi daude, eta haiek ongi dauden bitartean ni ere bai. Ahizpak ere hemen daude, beraz, lasai gaude. Ukrainan Kieven ondoan bizi gara, 38 kilometrora, baina herria nahiko ongi dago. Hiri handietan okerrago daude.

Noiz ailegatu zinen Lekunberrira?

Orain dela bi hilabete inguru, martxoaren 15ean. Oraingo, hemen geratzeko asmoa daukat. Gerra hasi baino lehen, paperak eta prestatzen ari ginen nik hemen ikasi ahal izateko. Nire ahizpa zaharrenak urtebete baino gehixeago darama hemen ikasten, eta nik ere hemen ikasi nahi nuen. Baina gerra hasi zen, eta ez genuen denbora nahikorik

“Etxe ondoan daukagun biltegi moduko batera sartu ginen, babesteko”

izan dena prestatzeko. Orain batez besteko notaren zain nago; Ukrainan 12 da notarik altuena, eta hemen, berriz, 10. Madrilen tramitatu behar dute hori guztia, eta esan didate sei hilabete inguru itxaron behar dudala. Bi pasatu dira oraingo. Izena eman dut, badaezpada...

Zer ikasi nahi duzu?

Ukrainan Ekonomia gradu bat egiten ari nintzen unibertsitatean. Hemen goi mailako ziklo bat egin nahi dut, administrazioari eta finantzei buruzkoa. Bestela, online ere egin dezaket, baina ez daukat horretarako gogo handirik.

Ahizpa bat aipatu duzu... Zenbat anai-arreba zarete?

Hiru ahizpa gara, eta anaia zaharrago bat ere badugu, aitzak nire amarekin hasi baino lehen izandako beste bikotekide batena. Hiru ahizpak hemen gaude; bi Fustiñanan daude. Gustura daude, eta familia oso jatorra da.

Eta gurasoak non daude?

Etxean, Ukrainan. Ama Poloniara etorri zen gurekin, baina aitarengana bueltatu zen gero. Poloniara ailegatzean egun batzuk eman zituen han, baina segituan bueltatu zen.

Gizonezkoek ez baitute Ukrainatik ateratzeko baimenik, ezta?

Ez, han geratzera derrigortuta daude. Lekunberrin badira Ukrainatik etorritako beste bi edo hiru familia, eta gizonak ere hemen daude. Baina horiek bizi ziren lekua oso egoera

zailean zegoen, eta Errusian barrena joan behar izan dute herrialdetik ateratzeko. Kristoren buelta eman dute...

Nola gogoratzen duzu gerraren hasiera?

Hasiera izan zen gogorrena, ezustean harrapatu gintuelako. Bagenekien kontu serioak zirela, zortzi urte zirelako jada Ukrainan gerra hasi zela, baina ez genuen uste hainbesterako izanen zenik. Adibidez, esan ziguten otsailaren 11n piztuko zela gerra, eta azkenean ez zen hasi... Baina 24an esnatu ginen misil bat aditu guelako etxetik. Herrian bertan lehertu zen. Hots handia ateratzen dute lehertzean; Kieven lehertzen diren batzuk ere aditzen dira. Lehenengo gau hartan, herri ondoan dagoen base militar batera jaurti zuten misila. Nire etxetik oso gertu dago, lau kilometrora. Sua ere ikusten genuen, argia, eta dena mugitzen zen, lurra eta guzti, pelikuletan bezala.

Hurrengo egunetan igual-iguala izan zen, baina lehenengo egun hartan ez genuenez espero, ez genekenez zer zen ere, oso gaizki pasatu genuen. Hurrengo egunean jakin genuen basera bota zutela misila.

24ko gau hartan egin genuen aurreneko gauza izan zen dokumentazio guztia hartu eta arropa asko jantzi; izan ere, etxe ondoan daukagun biltegi moduko batera sartu ginen, babesteko. Hemen ez daude, baina Ukrainan oso ohikoa da etxe ondoan edo etxe azpian biltegi moduko bat izatea udan barazkiak eta gordetzeko; lur azpian egoten da freskoago mantentzeko, hotza egiten duelako. Kontserbak ere egiten dira, tomatea eta pepinoak gordetzeko adibidez.



Yulia bere bi ahizpekin.
Arg: Yulia Kornienko

Hurrengo egunetarako erradiadore bat eraman genuen, eta ez genuen hotz handia pasa, baina aurreneko gauean bai, ez guelako espero eta ez guelako deus prestatu. Gauean hasi zenez, iluntzen zuen aldiro beldurtzen ginen.

Gauetz izaten ziren, beraz, erasoak normalean?

Hasieran bai, baina gero baita egunez ere. Aurreneko hori gaueko 5:15 aldera izan zen, eta ilun zegoen oraindik. Argitzen zuenean pixka bat lasaitzen ginen. Lehenengo egunean bi tiro izan ziren lehenengo, gero sirena hotsa, hemen albistegietan entzungo zenuten hori, eta gero beste hiru tiro. Nire herrian bi base militar genituen, baina bati ez diote eraso egin, gaur egun militar batzuk baino ez baitira bizi han.

Zenbat egun eman zenituzten horrela?

Martxoaren 24an hasi zen, eta apirilaren 8an atera ginen handik. Egunaren arabera, agintzen zigutenaren arabera, ezin izaten ginen etxetik atera; abisatu egiten zuten. Esaterako, goizeko 6:00etatik



Maider ahizpa eta Lurdes amarekin.
Arg: Yulia Kornienko

“Hemengo familia nire familia bezala da”

“Ukrainan, 50 urterekin oso zaharrak dira dagoeneko”

“Edadetu askori aditu diet mundu gerra baino gogorragoa izaten ari dela oraingoa”

arratsaldeko 18:00etara bakarrik ibil gintezke etxetik kanpo egun batzuetan. Gainerako orduetan, etxe barruan. Etxeratze agindua ezartzen zuten; hiru egun jarraian ere egin genituen horrela. Holako egunen aurretik, janari gehiago erosten genuen, etxetik atera gabe egon behar genuelako.

Eskolara joaten zineten?

Ez. Ni unibertsitatean ari nintzen ikasten, Kieveko batean, baina etxetik ikasten nuen; azterketak eta egitera joaten nintzen hara normalean. Gerra hasi zenean, autobusak eta ez ziren hara joaten. Gaur egun, etxetik ari dira ikasten unibertsitatekoak, eta eskolakoak ere bai. Itxita daude.

Apirilaren 8an atera zineten Ukrainatik. Nola lortu zenuten Poloniara joatea?

Lehenengo, Kievera joan ginen, trenez. Ama, nire ahizpa bat eta ni joan ginen, beste familia batekin batera; nire lagunetako baten familiarekin. Sei, denera. Kievetik Leopoliara joan ginen, eta handik Poloniara mugara. Gau osoa pasatu genuen mugan, esperoan, eta mugan autobusak zeuden. Polonian egon ginen bitartean, nire

Lekunberriko ama Lurdesen ezagun baten etxean egon ginen, haren gizona poloniarra baita, eta haren gurasoen etxean geratu ginen.

Eta Poloniatik hona?

Orain arte Chernobil elkartearekin etorri izan naiz Ukrainatik Lekunberriera. Hasieran, Arco Iris elkartearekin, baina hori desegin zenean, Chernobilekin etortzen hasi nintzen. Elkarrekin kide batzuek eta boluntario batzuek auto batzuk eta furgoneta batzuk prestatu zituzten gu handik ekartzeko, eta halaxe etorri nintzen. Bidean, hoteletan egiten genuen lo, eta bi edo hiru egunean iritsi ginen hona. Bidaia ongi egin nuen, jendea oso jatorra baitzen, eta orain ere harremana mantentzen dugu. Pare bat lehenagotik ere ezagutzen nituen, elkartetik.

Lekunberriko familiarengana etorri ziren: Lurdesen eta Rafaren etxera.

Nire anaia Aimar eta aita etorri zinen nire bila. Aimar hemengo anai-arrebetan erdikoa da; Unai da zaharrena, eta Maider gazteena, ni baino urte bat zaharragoa. Pozik etorri nintzen, eta haiek ere ni ikusteko gogoz zeuden.

Nola komunikatzen zinen hemengo familiarekin Ukrainan zinetenean?

Whatsappez. Amak ez zuen ia lorik egiten; erabat ari zen nirekin hizketan. Gainera, Internet oso gaizki zebilen, eta ez zen erraza.

Noiz hasi zinen Lekunberriera etortzen?

Orain dela hamabi urte, 6 urterekin. Ekainean 18 urte egiten ditut. Hemengo familia nire familia bezala da. Gogoan daukat etorri nintzen aurreneko aldi hura: uda zen, eta txankleta gorri batzuk jarri zizkidaten. Nik negarra egiten nuen erabat. Mugiroko presara joan ginen, pipak jatera, toalla handi batekin. Lasaitu nintzen, eta oso ongi pasatu genuen. Maider ni baino urte bat zaharragoa denez, ez da asko nabaritzen. Eskolara ere joan izan naiz berarekin, ikasturtea bukatu baino lehen etorri izan naizenean. Udaz gain, Eguberrietan ere etorri izan naiz, ahal izan dudanean. Azkeneko aldiz Eguberrietan etorri nintzen, eta aurretik bi urte eta erdi egin ditut etorri gabe, koronabirusagatik.

Bizimodua oso desberdina da Ukrainan eta hemen?

Hemen jendea urte gehiagoan bizi da; ez da harrizko aitona bat bizikleta gainean ikustea, kirola egiten. Ukrainan, 50 urterekin oso zaharrak dira dagoeneko, uste dute zahartuta daudela. Urte gutxiagoan bizi dira. Herriak ere zaharragoak dira Ukrainan. Lekunberri nahiko berria da, eta gauza asko ditu. Kiev zainduagoa dago, baditu leku politak, hiriak orokorrean gehiago zaintzen dituztelako.



Yulia eta bere aita Rafa.
Arg: Yulia Kornienko

Zer moduz daude zure Ukrainako lagunak? Baduzu haien berri?

Ukrainan daude denak. Ez dira joan beste herrialde batera, ez dira atera Ukrainatik. Beste hiri batzuetara joan dira, urrutiagora, gerratik ihesi, eta etxera bueltatu dira dagoeneko. Nik ere ahalko banu joango nintzateke hara, gurasoekin egotera, baina, horretarako, Poloniatik joan behar da, trenez, eta orain ezin da, trenbideak bonbardatzen ari baitira. Izan ere, beste herrialde batzuetatik janaria eta bestelakoak garraiatzen ari dira trenez, eta trenbideak oztopatzen ari dira. Oso arriskutsua da orain hara joatea. Ukrainako ama eta aita ikusteko gogoia daukat, baina ulertzen dut ez dela erraza, gerra bat dela, eta oraingoz ezin dudala bisitarik egin.

Egoera lasaitu da?

Igual-igual segitzen du, baina hiri handietan gehienbat. Nire herrian, adibidez, ez dago etxeratze agindurik. Baina Kievetik gertu dagoenez, ez dakigu zer gertatuko den.

Zer iritzi duzue ukrainarrek zuen presidente Zelenskiri buruz?

Gu pozik gaude presidente horrekin. Lehen esaten zuten pailazo bat zela, umorista izan zelako aurretik, baina politikarekin egin izan du umorea. Gauza on asko egin ditu presidente denetik. Gerra hasi baino lehen gauza pila bat egin ditu: Kieveko zubi nagusia konpondu zuen, errepide asko... Emakumeak eta umeak herrialdetik atera zituen gerra hasi zenean, eta berak herrialdean bertan geratzea erabaki zuen. Emakume edadetu askori aditu diet mundu gerra baino gogorragoa izaten ari dela oraingoa. Mariupol, esaterako, egoera oso latza izaten ari da: neskak bortxatu dituzte, mutilak lotu, torturatu, akabatu... sinestezina da.

Zer asmo duzu etorkizunera begira?

Hemen nagoen bitartean, edo hemen geratzen banaiz ere, Ukraina nire etxea izango da, eta beti bueltatuko naiz hara, oporretara bada ere.



Chernobil elkartearen bidez etorritako hainbat ukrainar. Tartean, Yulia. Arg: Yulia Kornienko

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza**

Antsoñea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araltz)

**OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32**



ARRUIZKO URTEKO LEHEN ERROMERIA OSPATU DUTE


Maiatzaren 8an, igandez, San Migel aingeruaren agertzea edo San Migel Txikito eguna zela eta, Arruizkoek beren erromeria egin zuten Arruizko San Migeltxoko Santa Luzia Ermitara, eta Joxe Mari Zabaleta han izan zen beste behin, guztiaren berri emateko. Udaberriko giro ederraz gozatuz, batzuk oinez eta beste batzuk autoz, 35 bat lagun joan ziren 12:30eko mezara. Inaxio Azkoagak eman zuen, eta ondoren herriak gazta, txorizoa eta ardoa eskaini zien joan zirenei. Hau da urtean Arruizkoek egiten duten lehenengo erromeria ermitara, abenduko 13ko hurrengo igandez ospatzen bai dute beren eguna ere.

14



LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS, EUSKAL DUATLOIA ETA BESTE BETELUKO FESTETAN

Pandemia garaiko neurriak kendu dituzten honetan, ibarreko herrietako festa batzordeko kideak aurtengo egitarauak osatzen ari dira, eta Betelu izanen da udako festa aldiari hasiera emango diona. Ekainaren 28an hasi eta uztailaren 3an bukatuko dira San Pedro jaiak. Umeentzako, gazteentzako nahiz helduentzako ekintzak eta emanaldiak izanen dira: besteak beste, uztailaren 1ean Kronoeskalada lehiaketa egingo dute goizean, San Donato ermitara, eta gauean Los Zopilotes Txirriaos talde nafarrak kontzertua emanen du. Igandean, berriz, euskal duatloia egingen dute Eneko Saralegik, Ugaitz Mugerzak eta Julen Kañamaresek bertan.



PRINTZAK HIRUGARREN URTEURRENA OSPATUKO DU

Hiru urte beteko ditu laster Printza Gune Autogestionatuak. Denbora tarte honetan hamai-ka egitasmo antolatu eta gauzatu ostean, ilusioz ospatuko dute urteurrena ekainaren 25ean. Haste-ko, bertso bazkaria egongo da, Erika Lagoma eta Aitor Bizkarrarekin; txartelak Amairu tabernan daude eskuragarri. Jarraian, berriz, Haizkan eta Rodeo taldeen kontzertuak izango dira. Irudian, EH-Donbass taldeko kideek joan den hilean Printzan emandako hitzaldia.



66 LAGUNEK PARTE HARTU DUTE INDUSTRIA ARLOKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAN

Lekunberriko Udalak, LekunberriON programaren barruan, prestakuntza ziklo bat abiatu zuen apirilaren 25ean Lekunberriko industrialdean, eta denera 66 lagunek parte hartu dute horretan. Helburua izan da parte hartzaileen gaitasunen hobekuntza sustatzea, udalerriko enpresen lehiakortasuna hobetu ahal izateko. Azken eguneko ekitaldian izan ziren Jose Mari Aierdi Nafarroako Gobernuako bigarren lehendakariordea, Gorka Azpiroz Lekunberriko alkatea, Miriam Marton Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea eta Carlos Adin Lanbide Gaitasunen Garapeneko Zerbitzuko zuzendaria.

15

INOIZKO ELIKAGAI BILKETARIK HANDIENA

Maiatzaren 6an eta 7an Nafarroako Elikagaien Bankuaren Bilketa Handia egin zen, eta Lekunberriko bilketak izan zuen arrakasta ikusita, arduradunek honako mezu hau helarazi nahi izan dute: "Larraunen eta Lekunberri biztanleei eskerrak eman nahi dizkiegu egin zuten ekarpenagatik, hasierako aurreikuspenak eta aurreko urteetan jaso zena gaingituz. Esker bereziak parte hartu zuten dendei eta boluntarioei, bilketan emandako laguntza guztia-gatik".



SOBERA DAUDEN LIBURUAK BERRERABILTZEKO

Mitxausenea kultur etxeko liburutegiko liburuak digitalizatzen aritu dira azken hilabeteotan, Nafarroako Liburutegien Sarearen Katalogoan sartzeko, eta, prozesu hori egin eta gero soberan geratu zaizkien liburuak berrerabiltzeko helburuz, ikasle batzuek bigarren eskuko azoka jarri zuten hileko hirugarren asteburuan. Lortutako dirua ekainean egingen duten ikasbidaiarako erabiliko dute. Ikasleak oso pozik agertu ziren, uste baino jende gehiago joan baitzen azokara erostera.



Eraso matxisten aurrean, erantzun bateratua

Araitzen gero eta indarkeria matxistako salaketa gehiago daudela ikusita, herritarrek 'Eraso matxistei erantzuteko protokoloa' ontzea erabaki dute. Festa giroan gertatzen diren erasoei erantzutea ere dute helburu, eta, horretarako, festa batzordeetako kideei deitu diete ekainaren 10ean Araizko udaletxean biltzera, eraso horiei nola erantzun adosteko; 18:00etan izanen da bilera.

16

Eneritz Urkola eta Nerea Martiarena. Arg: Labrit



Indarkeria matxistako kasuak egon badaude gurean ere. Are, azken urteotan, igo egin da indarkeria matxistako salaketa kopurua, Araitzen bederen. Espainiako Estatuak diru laguntza bat ematen die urtero udalei indarkeria matxistaren inguruko sensibilizazio lana egiteko, eta diru kopuru hori salaketen eta herritarren kopuruaren arabera izan ohi da; hau da, zenbat eta salaketa gehiago izan biztanleko, orduan eta diru laguntza handiagoa ematen du. Eta Araizko Udala izan da azken urteotan gero eta diru gehiago jaso duten udaletako bat.

Egoera hori ikusita, Tximuutxe bilgune feministako kideek eta udalak berak beharrezkotzat jo zuten indarkeria matxistaren gaiari heltzea, eta, behintzat, horretaz hitz egitea, ikusaraztea ibarra ez dela salbuespen bat, eta hemen ere gertatzen direla horrelako erasoak. Hala, Emagin ikerketa eta dokumentazio zentro feministak gidaturik, *Eraso matxistei erantzuteko protokoloa* ontzeko bidean dira herritarrek. Bi saio ireki egin dituzte dagoeneko, eta ekainaren 10erako antolatu dute hurrengoa; azken horretan, herrietako festak izanen dituzte hizpide, eta helburua izanen da inguruko herrietako festetan gertatzen diren eraso matxistei nola erantzun zehaztea. Sare bat sortu nahi dute horretarako, eta, horregatik, festa batzordetako kideei deitu diete bileran parte hartzera eta pauso garrantzitsu hori ematen laguntzera. Araizko udaletxean izanen da, 18:00etan.

“Ez du esan nahi kasu gehiago daudenik, baina bai salaketa gehiago daudela”

Nerea Martiarena eta Eneritz Urkola dira prozesu horretan hasieratik aritu direnetako bi. Araizko Udaleko zinegotzia da Martiarena, eta Tximuutxe bilgune feministako kidea, berriz, Urkola. Tximuutxeko kideak azaldu duenez, talde feminista orain dela hiru urte inguru hasi zen Espainiako Estatuak udalei ematen dien diru hori baliatzen indarkeria matxistaren inguruko sensibilizazio lana egiteko. Besteak beste, tailerrak eta ekintzak antolatu izan dituzte. Baina konturatu zirenean gero eta diru gehiago jasotzen zutela, kezkatu egin ziren: “Seinale txarra da. Halere, ez du esan nahi kasu gehiago daudenik, baina bai salaketa gehiago daudela. Udalean ere kezkatuta zeuden, eta argi ikusi genuen benetan landu behar genuela indarkeria matxistaren prebentzioa”. Martiarenak adierazi du udalekoentzat zer bait berria zela kontu hori, eta horregatik jo zutela Emaginengana aholku eske. Hala, protokolo bat egitea adostu zuten, “malgua eta bizia” izango dena, ezinezkoa baita gertatzen diren eraso mota guztiak zehaztea eta horietarako guztietarako pautak ematea.



Beteluko zahar etxeko langileei elkartasuna adierazi zieten aurtengo Martxoaren 8an. Arg: Labrit



2021eko Martxoaren 8an Tximuutxe taldeak egindako ekitaldia. Arg: Tximuutxe

17

Laguntzeko lan talde bat

Protokoloaz gain, lan talde finko bat ere eratuko dute indarkeria matxistako kasuei erantzuteko. “Emakume batek eraso bat jasaten badu, jakin dezan udalera etor daitekeela, edota lan talde bat dagoela hari laguntzeko prest. Talde hori hasieratik ez da aditua izango, baina, pixkanaka, trebatuz joango gara, ikasten, eta behintzat jakingo dugu zer pauso eman behar diren”, esan du Martiarenak. Urkolak nabarmendu du talde horrek, erasoei erantzuteko ardura izateaz gain, prebentzio lana ere egingo duela, eta adostuko duela urtean zer ekintza egin egoera larri horiek ekiditeko.

“Emakume batek eraso bat jasaten badu, jakin dezan lan talde bat dagoela hari laguntzeko prest”

Gainera, argi daukate talde horren funtzioa ez dela izango epaitzea edota frogatzea salatutakoa benetan gertatu den ala ez, baizik eta salaketa jartzeko pausoa eman duenari babesa ematea. “Ez da gure funtzioa esatea ez bat erruduna denik, ez bestea biktima”. Hain justu, haien irudiko, istorioaren alde bateko zein besteko protagonistari etiketa bat jartzeak ekar dezake egoera larriagotzea:



2019. urtean Araitzen eta Betelun egindako manifestazioa.

“Erasoa ez bada intentsitate oso handikoa izan, aukera bat da erasoa egin duenarekin hitz egitea eta erreparaziorako aukera ematea; bera ere konturatu dadila jarrera desegoki bat eduki duela, eta prest egon dadila jarrera horiek zuzentzeko beharrezko erremintak jasotzeko”, azaldu du Urkolak.

Festa giroko erasoak

Uda ate joka dagoen honetan, jai giroan gertatzen diren eraso matxistak ere izan dituzte jomugan protokoloa lantzeko prozesuan. Etxe barruan ez ezik, kanpoan ere izaten baitira eraso matxistak, eta, askotan, festa giroak berekin dakar egoera are larriagoak sortzea: “Badakigu intentsitate han-

diko egoerak gertatzeko leku bat dela jai giroa, egunerokoan gertatzen diren egoerek dimentsio handiagoa hartzen dutelako jai giroan gaudenean, eta horregatik erabaki genuen saio berezitu bat egitea horren inguruan”, esan du Tximuutxeko kideak.

Hala ere, uste dute jai giroan dau-denenek erabaki beharko dutela nola erantzun horrelako zerbait gertatzen denean, eta jai batzordearen ardura dela eraso matxistako egoerei aurre egitea. Dena den, azpimarratu dutenez, garrantzitsua da herri guztietako batzordeen artean adostea zer egin horrelako zerbait gertatzen bada espazio horretan, eta sare indartsu bat osatzea.

Eskolako lanketa

Araxes eskolako irakasleekin nahiz ikasleekin egingo duten lanketa da prozesuaren beste habeetako bat. Martiarenak azaldu duenez, eskolari indarkeria matxista lantzeko proposatu ziotenean, oso interesgarria iruditu zitzaion, eta aurreikusita daukate ikasturte honen bukaeran edo hurrengo urtekoaren hasieran abiaraztea lanketa hori. “Hasiera bat da, baina gustatuko litzaiguke jarraipena izatea”. Urkolak gazteenekin egin beharreko prebentzio lana nabarmendu du: “Behintzat has gaitzen gazte txoengandik. Nire ustez, prebentzio lanean hori da inportanteena. Gero gauzak alda daitezke, baina hasieratik hasten bagara, oinarri bat izango dute”. Ikasleengan ez ezik, irakasle-

engan ere jarri dute arreta: “Irakasleena ere garrantzitsua da, egunero daudelako ikasleekin, eta mezu pila bat helarazten dizkietelako; haurrak esponja baten modukoak dira”.

Zigor soziala

Araitz-Betelun ez da sekula horrelako protokolorik egin, eta azken urteotan, Tximuutxe bilgune feministak deituta, eman diren erantzun bakarrak izan dira erailketa kasuak gertatu direnean eta Euskal Herriko Mugimendu Feministak deialdiak egin dituenean. Hain justu, Urkolak uste du “ahalduntze” kontu bat dagoela horren guztiaren atzetan: “Hasteko, orain arte ez dugu izan ibar honetan gertatu diren egoeren berri, eta, ondorioz, ez da erantzunik izan. Hori ahalduntze edo identifikazio kontu bat dago, hau da, oraindik ez dakigu ongi identifikatzen zer jarrera diren desegokiak, eta alde horretatik ere lanketa bat egin behar da”.

Martiarenaren iritzi ere askotan “isilean” gelditzen dira istorio asko: “Oraindik ere lotsa handia dago kontatzeko eremu pribatuan zer gertatzen den; emakume horiek ez dira auzartzen, eta egoera oso bereziak dira, besteak beste, haurrak egoten direlako tartean. Baina, antza denez, gure

ibarrean behintzat egon, badaude”. Sinesgarritasuna hitza ekarri du segidan Tximuutxekoak: “Sinesgarritasun handiagoa ematen zaio printzipioz ustez erasoa egin duenari, erasoa jasan duenari baino. Zerbait egingo zuenaren edo merezi zuenaren mamua presente dago oraindik ere”. Zigor soziala dago horren atzetan, gizarteak berak erasoa jasan duena epaitzeko eta salatutakoa zalantzan jartzeko joera, hain zuzen.

Gutxi falta zaie protokoloa osatzeko, eta, behin osatuta, komunikazio plan bat abiarazi nahi dute; baitetik, herritarrei ondutakoaren berri emateko eta jakinarazteko lan talde bat dagoela haiei laguntzeko prest laguntza beharrez gero, eta, bestetik, erakusteko lehenengo arretako zerbitzuen telefono zenbakiak daudela denen eskura, erabat martxan. Biak ala biak pozik daude protokoloa osatzeko deialdiak izan duen harre-arekin, uste baitute herri, adin eta eremu desberdinetako lagunak bilduta posible dela kalitatezko lan bat egitea, eta zubi lanak egiteko ere bai. Etorkizunerako erronka ere jarri dute: “Hori sistematizatzea lortu behar dugu, taldea osatzen dutenak aldatuta ere lanak aurrera egitea”.

“Ez dakigu ongi identifikatzen zer jarrera diren desegokiak”

“Oraindik ere lotsa handia dago eremu pribatuan zer gertatzen den kontatzeko”

“Egunerokoan gertatzen diren egoerek dimentsio handiagoa hartzen dute jai giroan”



Protokoloa egiteko bigarren saioa, Beteluko udaletxean. Arg: Tximuutxe

IORTIA CLÍNICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

Sutea Aralarren



DBH 1. maila
1. SARIA: Egoitz Oreja

Bazen Txomin izeneko gizon bat, 72 bat urte zituen eta artzaina zen. 550 ardi inguru zituen eta mutilzarra zenez asko maite zituen bere ardi kuttunak. Bihotz oneko pertsona zen. Oso ezaguna eta maitatua zen herrikoen artean, konfidantza nabarmena eskaintzen baitzien pertsona guztiei. Berdintasuna asko baloratzen zuen; ez zitzaion inporta neska, mutil, afrikar edo frantziar izan. Gaintza izeneko herri txiki batean bizi zen. Basamortu batean harea bezainbeste zuhaitzez inguratuta zegoen Txomin. Naturarekin bat egirik, mendia oso maite zuen eta gorroto zuen jendeak berari harrotasunez hitz egitea. Hike-tan egiten zuen eta ez zuen atsegin jendeak berari erderaz hitz egiten zionean.

Udaro bezala, Aralarra joan zen bere txakur Bixkorrekin eta ardiekin. Uda osoa txabolan pasatzeko asmatan. Bere txabolaren ondoan beste txabola bat zegoen, Jexux eta Joxe anaien txabola. Beraien lagun mina zen Txomin eta mendian batera ibiltzen ziren.

- Hi, goazen hire ardiak ikustera! esaten zuten anaiek egunero.

- Irumugarrieta aldean zeudek eta zaila duk ardiak ikustea.- erantzun zien Txominek.

Ibilaldiari hasiera eman eta Bixkor txakur leiala hartuta, Irumugarrietarantz abiatu ziren hiru lagun minak. Txabolaz txabola eta larrez larre, Jabi basozainaren txabolaraino iritsi ziren.

- Musean jolastu gaitzen kafea hartu bitartean. Zuen ardiak abaro zeudek eta- esan zuen Jabik txabolaraino iritsi eta berehala.

Jokoaren hatzaparretan murgildu ziren eta hiruz jolastu eta gero Joxek erre usaina sumatu zuen.

- Hi ez al duk erre usain hau usaintzen?- galdetu zion Txomini.

- Bai, hartzen diat bai.

Kanpora atera eta Gipuzkoa aldetik, Aralar zeharkatzen, suzko olatu moduko bat ikusi zuten. Berehala arriskuaren berri ziren eta ardiak biltzera joan ziren Bixkor txakurra hartuta. Gaintzaraino bide luzea zuten oraindik baina sinetsita zeuden lortuko zutelak.

- Ez zaitzete urduritu!- oihukatzen zien behin eta berriz Txominek bere lagunei.

Aurreko zenbakian, Errigorak babestutako ipuin lehiaketako irabazleak zoriondu genituen, baina Egoitz Oreja irabazlearen ipuina ez genuen argitaratu. Hona hemen DBH 1eko ikasleak idatzitako istorio bikaina. Zorionak, Egoitz!

Gero eta gertuago ikusten zuten sua beraiengandik, baina geroz eta gertuago ikusten zuten Gaintza. Aralarren inoiz izan den sutarik handienetik ihes egiteko gutxi falta zitzairen. Txominen baserriko atean zeuden, eta Txomin bere ardiak kontatzen hasi zen.

- 529, 530, 531, 532, 533... amaituta. Baina 17 falta dituk!- esan zuen triste Txominek.

112ra deitu zuen, sua gero eta gertuago ikusten baitzuen bere baserritik. Haizea baino arinago etorri ziren suhiltzaileak. Hiru ziren: Txarli, Mintxo eta Julian.

Ordu askoz egon ziren ura botatzen eta sua Gaintzara iristea sahiestu zuten. Egunak joan eta egunak etorri suhiltzaile gehiagoren laguntzaz su ikaragarria itzaltzea lortu zuten.

- Eskerrik asko, eskerrik asko!!!- esaten zien Txominek suhiltzaileei, besarkadak eman bitartean.

Plazan elkartu ziren lau lagunak eta hiru suhiltzaileak.

- Gaur egun handia duk, ardi asko eta Araitz bailara salbatzea lortu diagu. Horregatik, herriko elkarteetan bazkari eder bat egingo diagu denok.- esan zuen Txominek irrifartsu.

Baratzeko letxugekin prestaturiko entsalada, etxeko txuletak... denetarik zegoen. Sekulako eguna igaro zuten eta beraien bihotzetan betirako iltzatuta geratu zen egun hau, Aralarren historiako sutarik handienaren salbazioko eguna.

Urrezko Banakako Aizkolarien Finalerdia jokatu da Lekunberrin



Maiatzaren 22an, Lekunberriko Jaian Jai pilotalekua 2022ko Urrezko Banakako Aizkolaria Txapelketako Eusko Label Sariko finalerdiaren testigu izan zen. Berderatzi aizkolaria aritu ziren nor gehiagoka: Ugaitz Mugerza, Mikel Larrañaga, Hodei Ezpeleta, Julen Alberdi Txikia IV.a, Jon Rekondo, Julen Larrea III.a, Suharri Rodriguez, Iker Vicente eta Jokin Urretabizkaia Basozabal. Parte hartzaile guztien denborak hartu ziren kontuan finalerako sailkatua aukeratzeko, eta, kasualitatez, txanda bakoitzeko irabazleak izan ziren guztira ere hiru denbora onenak lortu zituztenak, hain zuzen ere, Mikel Larrañaga, Iker Vicente eta Julen Alberdi Txikia IV. Emakumezkoen Banakako Aizkolaria Txapelketan, berriz, bost aizkolaria aritu ziren lehian: Nerea Sorondo, Laiene Pikabea, Nerea Arruti, Maika Ariztegi eta Karmele Gisasola Zelai III.a. Lehenengo hirurak sailkatu ziren finalerako. Gazte mailako aizkora txapelketetan,

Harrijasotze txapelketei dagokionez, emakumezkoetan Patricia Martin aritu zen lanean, guztira 31 jasoaldi burutu zituelarik (12 kubikoari eta 19 bolari). Gizonetzkoetan, Jokin Eizmendik 4.303 kilo altxatu zituen.

Ingude txapelketan, azkenik, Jokin Eizmendik 7 jasoaldi eman zizkion 142 kiloko ingudeari, eta Imanol Royok 4 jasoaldi.



Malloak Contact Festibala

Aurten bai! Orain bi udara egin behar genuen, baina pandemiaren kontu hau etorri zen.

Contact inprobisazioa dantza bat da, non kontaktu puntuetan arreta jarrita, inguruko beste elementuetan ere, norberarekin eta bereziki besteekin dantza inprobisatzen den. Ez du helburu estetiko bat, denok dantzariak garelakidatzen du.

Lekunberriko kiroldegia izango da dantzaleku, eskolan berriz jan eta lo. Uztailaren 6an hasi eta 10era arte, 40-50 lagun elkarrekin biziko gara, sentikortasuna garatuz, gure burua, ingurukoak eta mundua gehiago entzuteko eta ondorioz egokiago harremantzeko-dantza-tzeko ekintzak eginez.

Saio gidatuak izango ditugu, 15 ordu osotara, dantzaren bideak besteek landutako bide eraginkorretan garatu ahal izateko. Zuzeneko musika ere izango dugu, giro berezi eta egokitua emateko. Inguruaz gozatzeko aukera ere izango dugu, bai denbora libretan, baita Miren Saralegik gidatutako saio batetan ere. Ardura eta plazerra izango da ekitaldi honetan antolatzaile, dantzari, musikari eta lagun bezala bizitzea.

Milesker ere Larraun-Lekunberriko udalei, kiroldegikoei, eskolakoei... ekintza hau garatzeko erraztasunak jartzeagatik.

Araxes laugarren Nafarroako 4x4 Sokatira Txapelketan

Aurreneko aldiz lehiatu dira Araxes taldeko neskak Nafarroako 4x4 Sokatira lehiaketan, eta argi utzi dute ez direla edonolako taldea. Izan ere, azkenean laugarren postua eskuratu arren, azken jardunaldian Beti Gazta talde lesakarra garaitzea lortu zuten, eta, hala, lehen posturako borrokan sartu ziren Araxes, Beti Gazte eta Txantrea, berdinketa hirukoitza egin baitzuten. Azkenik, nekeak jota eta tarte oso txikiarekin, beste bi taldeen atzean geratu ziren, baina pozez gainezka amaitu zuten txapelketa.

Azken jardunaldiren aurretik, Betelun Herri Kirola Eguna ospatu zuten aurrenekoz, eguraldi eta giro bikainak lagunduta. Goizean, ume eta gaztetxoei zuzendutako herri kirolak eta jolasak egin ziren; ondoren, bazkaria; arratsaldean, 4x4 sokatira txapelketa egin zuten, eta, ongi baino hobe bukatzeko, kirolarientzako afaria prestatu zuten Zigari elkarteak, baita parranda ere Atallun.



Lekunberriko eta Larraungo boulderrak, erabiltzeko prest



Lekunberriko kiroldegiko eta Baraibarreko eskola-etxe zaharrean egindako eskalatzeko guneak inauguratu dituzte, eta, hala, erabiltzeko prest daude biak. Baraibarrekoaren irekiera atzeratu da irekiera publikorako beharrezkoak diren irisgarritasun arripala eta sute irteera atondu gabe zeudelako.

Lekunberrikoa ere, Ioseba Ordoiki Kirol zinegotziak adierazi duenez, esfortzu handiz egin dute, baina oso pozik daude inaugurazioan izandako harrerarekin. Gainera, eskerrak eman nahi izan dizkie gazteei, egindako lanagatik. Aurrerantzean lehiaketak eta erakustaldiak egitea espero dute, Lekunberri K.E elkarteak antolatuta. Kiroldegiko bazkideek ere erabili ahaliko dute.

Bengoetxea VI, Ladis Galarza eta beste San Joanetako pilota jaialdian

Pilota jaialdi berezia antolatu dute San Joan bezpera egunerako, ekainaren 23rako. Hain zuzen, Bengoetxea VI-Gurrea, Astiz-Ladis Galarza eta Iñaki Galarza-Miguel Lazkoz eta Oinatz Iriarte-Lenitz Galarza pilotariak erakustaldia egingen dute, Lekunberriko pilotalekuan. Sarrerak eskuragarri daude dagoeneko (5 euro): Aurrera tabernan, Artxueta harategian eta Plazaola kirolgunean. Informazio gehiago: larraunpe@gmail.com helbidera idatzita.

Antolatzailea/Organizadorea: Laguntzailea/Colaborador:

Lekunberriko Udala

LEKUNBERRI

ekainak
23
junio
18:00h

IÑAKI GALARZA - MIGUEL LAZKOZ
OINATZ IRIARTE - LENITZ GALARZA

BENGOETXEA VI - GURREA
ASTIZ - LADIS GALARZA

SARRERAK/ENTRADAS
5€

BAZKIDEAK/SOCIOS
-16 URTE/ANOS
2€

SALGAI/VENTA:
- AURRERA TABERNA
- CARNERIA ARTXUETA HARATEGIA
- COMPLEJO DEPORTIVO PLAZAOLA KIROLGUNEAN

info: larraunpe@gmail.com

MOTZ-MOTZEAN

VERONICA SATRUSTEGI

Hileko mingarrietan jomuga

A zer anabasa sortu duen Gobernuaren lege proposamenak! Ziur nago zerbait entzun duzuela: hileko mingarrietatik baja dela, abortua dela edo konpresa eta tanpoien BEZa dela. Nik lehenengoari helduko diot gaur (denak landuko bantitu, Mailope gai bakarrekoa litzatekeelako hil honetan).

Lege honekin hileko mingarriak dituzten emakumei aukera ematen zaie baja hartu ahal izateko. Lehen aldiz mahai gainean jarri da horrenbeste urtez normalizatua izan den mina (baina normala ez dena). Pentsa! Lege bat behar dugu gure mina ikusgarri eta sinesgarri egiteko.

Kontrako ahotsak esan dute kontratazio arrakala (generoagatik) areagotu egingen duen neurria dela. Ahulago irudikatzen gaituztela horrela diote beste batzuek. Edo mina normalizatzen dela hala.

Ulertu behar dugu gure fisiologiak (eta prozesu fisiologikoak) desberdinak direla (haurdunaldia, hilekoa...) eta, beraz, bestelako beharrak ditugula. Ahulagoak? Zer arraio! Sistema kapitalista honentzako antza, bai. Baina, barkatu: inor ez da libratzen produkzioaren zirkulu zoro honetan. Arrakala egon badago, ez da deus berria. Fokua bertan egon beharko luke aspaldi, eta ez orain.

Eta... hilekoaren mina normalizatuko dela? Egon... ez al dago jada normalizatua? Orain arte zer pentsatu dugu gehiengook mina izan dugunean?

Legeak eta ekimen politikoak behar dira. Eta horrekin batera: kalitatezko hezkuntza eta ikerketa erdigunean jarri behar dira.



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitarakoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelenehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitziberri@hotmail.com

- Ile-apaindegia
- Estetika
- Presoterapia
- Podologia
- Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
- Dietista-nutrizionista
- Mikropigmentazioa ezpainenetan
- Mikroblading bekainetan



emozioen munduan

●● Lorea Zulet (Psikologoa)

Beldurrak

Beldurra arriskuaren pertzepzioak eragiten duen emozio desatsegin bat da. Arrisku hori benetakoa izan daiteke, esate baterako, gure osotasun fisikoa edo emozionala mehatxatuta dagoen egoera bat (altuera handia igotzen ari garenean, adibidez) edo uestezkoa, non arriskua benetakoa ez den baina hala sentitzen den (gure irudimena martxan dagoenean, basatiak). Dagoeneko mehatxatuta sentitu garen egoerengatik eta berriro benetakoak balira bezala suspertzen ditu. Oraina, etorkizuna edo baita iragan ere.

Emozio honek oso sintomatologia anitza du ezaugarritzat: dardarak/hotzikarak, taupadak bizkortzea, izerdia, arnasketa anormala... sintoma fisikoei dagokienez. Baina gure erreakzio moduan eragiten duten sintomak ere ekartzen ditu berekin: estimuluarekiko pentsamendu desitxuratuak eta neurrigabeak. Azken hauek egunero aurre egin ditzakegun gure barne munstroak dira.

Munstro hauei aurre egiteko modua ere oso ezberdina da, batzuetan oldarkor erantzuten baitugu (defentsarik onena eraso ona delako esaldia ezaguna egin ten zaizue?), batez ere ezezagunaren aurrean dugunean, munstro hau oso handia izan ohi da.

Beste batzuetan beldurrak blokeatu eta paralizatzen gaitu. Ezin jakin nola erantzun, hitzik gabe geratzen gara, fisikoki ezin mugitu. Erreakzio hau oso primitiboa da, izan ere, izoztuz gero, harrapakariak gutxiago ikusiko zaitu, eta, zorionez, jateko aukera gutxiago izango zaitu.

Zer egin beldur hau murrizteko?


• Lehenengo gauza beldurra identifikatu eta onartu, normalean erraza da beldurra pizten duena zerbait fisikoa eta nabaria denean. Beldurrak irrazionalak eta erlazioekin zerikusia daukatenean (adibidez amodio erlazio bat hasten dugunean) zailagoa da identifikazio hori.

• Gelditu pentsatzera senti-

tzen dugun beldurra orainean edo iraganeko munstroetan oinarrituta dagoen.

• Hurrengo pausoa bilatu seinale objektiboak, garrantzitsua da munstroak ez elikatzeke errealitatean oinarritutako seinaleak bilatzea, behatu ingurua, zerk beldurtzen gaituen, identifikatu eta ezabatu etorkizun posibleei buruz ditugun ideiak.

Baina oroitu, beldurra sentitzea saihestezina eta beharrezkoa da. Gai nontzeko emozioak bezala. Onartu eta bizi beldurra, pasako da. Eta pasatzen ez bada edo kezkatzen bazaitu, eskatu laguntza.



Ander Elizalde
(Betelu)



Hurrengoa:
Iñigo Lasarte
(Lekunberri)

Kaixo, Mailopezale!

Atal berri hau gure inguruan ditugun mendi itzuli eta txokoei buruzkoa izanen da.


Zergatik aukeratu dut?

Askotan egiten dudan itzuli bat da. Horrez gain, uda gerturatzen doan heinean eta bereziki San Pedro jaiak, iaztik beteluarren artean sendo errotu den martxa bihurtu baita. 2021eko festetan, Joxe Mari Eskamendi Txarti-ren omenez, Kronoeskalada lasterketa antolatu zen, ideia ezin hobea urte askoan gure herriaren zaindaria izan zena omentzeko.

Bidea:

Toki desberdinetatik abiatu daiteke. Kronoeskaladan egin zen bidea azalduko dizuet:

- 1 Beteluko parketik zahar etxera abiatuko gara, Wisko fabrikaren noranzkoan, 500 bat metro aurrera. Zahar etxera iristean, hango ermitari parez pare begiratuta, ezkerreko bidea hartuko dugu, aldapa gogor batean gora.
- 2 Hormigoizko bide horrek Errexil Borda landetxera eramango gaitu, eta handik, hesi bat pasa ondoren, mendiko bidexka hartuko dugu. San Isidro zelaira ailegatu gara. Zuzen jarraituz, laster ikusten da jarraitu beharreko xenda.
- 3 Kaskora igotzean, bi aukera ditugu: zuzen ataka pasatzea edo ezkerreko bidea hartzea, mendi punta inguratuz. Bigarren aukera hori da Kronoeskaladako, Joxe Mari-ren omenez landatu zen pagora iristen baikara.
- 4 Eskuinera hartuko dugu, hesi bat ikusi arte; hesia pasa, eta ezkerretara hartu, borda bat eta San Donato ermita pasaz.
- 5 Zuzen behera, eta beste hesi bat. Bidegurutzean, eskuinera hartu, beherantz. Kilometro bateko jaitzieraren ondoren, zahar etxera ailegatu gara berriro. Handik berriro parkera.



maite ditut maite gure bazterrak

San Donatoko itzulia

Ibilbidea: zirkularra
Distantzia: 4.3km
Desnibela: +200
Zailtasuna: erraza

LATXA ARRAZAKO AHARIEN LEHENENGO ENKANTE NAZIONALA, GORRITIN



Ahari muturbeltz bat. Arg: Labrit.

Mendialdeko Azoka Ibiltariak Gorritin egin zuen parada maiatzaren 25ean, baina, artisauen eta nekazarien produktuez gain, bisitariek beste nonbait ere jarri zuten arreta: latxa arrazako aharien lehenengo enkante nazionala egin zuten herriko frontoiean. Balio genetiko handiko ahariak hautatu zituzten enkanterako, eta 25 lagunek inguruk parte hartu zuten. Denera, 34 ahari zeuden salgai, hiru barietatetakoak: 14 muturgorri, EAeko 11 muturbeltz eta Nafarroako beste 9 muturbeltz. Bi kategorian izan ziren: urte bat baino gazteagoak ziren ahariak 180 eurotik hasita jarri zituzten enkantean, eta zaharragoak, berriz, 280 eurotik hasita. Ordaindutako preziorik altuena 460 euro izan zen.



Gazteak nahiz helduak elkartu ziren Gorritin. Arg: Labrit



Enkantea egiteko momentua. Arg: Labrit



Mendialdeko Azoka. Arg: Labrit



Ahari gazteak eskaini zituzten enkantean. Arg: Labrit

M. Angeles Urrizalki
iragarkiak, berriak, eskelak...
Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala
948513056
699179437

Atabal
okindegia
Era askotako ogiak eta gozoak
Etxez etxe banatuko dugu
Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE HARATEGIA
M
HARATEGIA
948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.
Antigua kalea 7
31890 BETELU

Laborantzan eta abeltzaintzan trebatzeko aukera

Gure eskualdean lehen sektorea indarberritzeko ahaleginetan gabiltzan honetan, Fraisoro Eskolara jo dugu. Bertan hasten baita gazte askorentzat nekazari edo abeltzain ibilbidea. Erdi mailako ziklo berria eskainiko dute hurrengo ikasturtean eta matrikulatzeko epea irekita dago.

Gure ibarretik nahiko gertu, Zizurkilan (Gipuzkoa), 36 kilometro ingurura hain zuzen, bada laborantzan eta abeltzaintzan sakontzeko aukera

ematen duen eskola bat: Fraisoro Eskola. Fraisoro Eskola Lanbide Heziketako ikastetxe publikoa da, eta hainbat ikasketa arlotan da espezia-

lizatua: nekazaritza-abeltzaintza, basogintza eta natur ingurunearen kudeaketa, lorezaintza eta loregintza. Eskaintza integrala da; hau da, bate-tik, erdiko nahiz goi mailako zikloak egin daitezke Fraisoron, baita lanerako prestakuntzak ere. Matrikulatzeko epea uztailean irekitako dago. Zentroaren helburua da lehen sektoreko profesionalak ahalik eta hobekien prestatzea.

Fraisoro Eskolako kideek bada-kite Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberriko herritarrek lotura estua daukatela lehen sektorearekin, eta horregatik iruditu zaie interesgarria eta garrantzitsua zikloen berri izatea eta horietan ikastera animatzea. Gainera, zentroak erraztu egin nahi die ikasleei hara joan ahal izatea; horretarako, egoitza eta jangela zerbitzua eskaintzen dute, baita garraio zerbitzua ere. Furgoneta bat daukate astelehenetik ostiralera ikasleak Billabona-Zizurkilgo geltokira joan eta itzuli ahal izateko.

Heziketa zikloek 2.000 orduko iraupena dute, eta D hizkuntza erduan ematen dira, hau da, euskaraz. Erdi mailako graduak dagokienez, hauek dira eskaintzen dituzten ikasketak: Lorezaintza eta Loregintza Teknikaria, Nekazaritza eta Abeltzaintza Ekoizpeneko Teknikaria, Elikagaiak Eraldatzeko Teknikaria; goi mailako kasua, berriz, Basoa eta Natura Ingurunearen kudeaketako Goi maila teknikaria izateko zikloa eskaintzen dute.



Elikagaiak eraldatzeko ziklo berria

Horien artean, bada aurten nabarmendu beharreko ziklo bat: Elikagaiak Eraldatzeko Teknikaria izateko erdi mailako zikloa. Izan ere, 2022-2023ko ikasturtean emango dute lehen aldiz. Orain arte, nekazaritza arloko zikloak bakarrik eskaini izan ditu, eta, orain, elikagaien industriaren arlora egingo du salto; batetik, ikasleek jasotzen duten formakuntza osatuz, eta, bestetik, sektoreak dituen lan aukerei erantzunez.

Fraisoroko zuzendaritzak azpimarratu duenez, nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizle askok beraiek ekoiztutako produktuen eraldaketa egiten dituzte gaur egun, gero eta gehiago. Baina ekintza horiek base-ri edota ustiategi batean egiten direnez, nekazaritza arloko jarduerak balira bezala hartzen dira. Ohartu dira, artzainen kasuan bereziki, profesionalak behar dituztela beren jardunarekin segitzeko: "Lan eskaintzen merkatuari so egiten badiogu, azken urteotan ikusten dena zera da, gero eta abeltzain gehiagok, eta artzaintza munduan zehazki, langile bat kon-

tratatu nahi dutenean, gaztagintza inguruan formazioa duten pertsonak eskatzen dituzte". Horri erantzun nahian sortu dute ziklo berri hori, zeinak lehengaien eraldaketa prozesuak bilduko dituen, hala nola esnekien eta kontserba begetalen prestakuntza eta eraldaketa, haragiaren zatiketa eta eraldaketa.

Horrekin batera, formazio heziketa duala bultzatzen du Fraisoro Eskolak, heziketako titulu bat lortzeko aukera emanez, ikastetxeen eta enpresen artean lankidetzan gartzten den ikaskuntza-prozesu baten bitartez, teoria eta praktika batzen dituen lan eginez ikasi programarekin. Gainera, lan-poltsa zerbitzu propioa dute, ikasleei praktikak edota lan eskaintzak egiteko era egokia. Formakuntza arautu horretaz gain, Fraisorok beste kurso ez-arautu batzuk eskaintzen ditu, eskolak berak antolatutakoak eta baita Lanbideren eskutik antolatutakoak ere.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943-692 162 zenbakira edota idatzi ondorengo helbidera: fraisoro@fraisoroeskola.eus

Fraisoron eskaintza integrala da; erdiko nahiz goi mailako zikloak egin daitezke, baita lanerako prestakuntzak ere



Fraisoro Eskolako ikasle batzuk. Arg: Fraisoro Eskola

<p>aseguru gintza XXI</p>	<p>ASEGURU AHOLKULARIAK</p> <p>Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da</p> <p>► aseguruak@aseguruak.eus</p> <p>► 943 65 22 20</p> <p>► Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa</p>	<p>urrutia enea</p> <p>etxeko hestekiak</p> <p>LEKUNBERRI</p>	<p>INFORMATIKA ARALAR</p> <p>LEKUNBERRI - ARAITZ LARRAUN</p> <p>SALMENTA ETA KONPONTZEA</p> <p>634 551 743</p> <p>infoaralar@gmail.com</p> <hr/> <p>SAN MIGUEL</p> <p>Taberna-Jatetxea</p> <p>Arribe</p> <p>948 51 31 34</p>
----------------------------------	--	---	--

IRAGARKI TAULA

LEKUNBERRIKO ETA LARRAUNGO UDALEK ONARTU EGIN DITUZTE "GIZA ESKUBIDEAK ETA OSASUNA LARRAUN BAILARAKO PLATAFORMA" TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOAK

Osasun larrialdiaren ondorioz sortutako hainbat egoerarekin kezkatuta, Larraungo herritar batzuek mozio bat aurkeztea erabaki zuten: "Pasaporte berdea, eskola-segregazioa eta oinarritzko giza eskubideak urratzen dituzten beste neurri batzuk etorkizunean ez aplikatzeko mozioa". Bi udalek onartu dute:


-Aukera askeko ariketa batean jasotako eta onartutako tratamendu medikoen inguruko erabaki pertsonal bakoitzerako errespetua bermatzea.

-Neurri hertsatzaile, diskriminatzaile eta mehatxatzaileak gaitzestea eta debekatzea, pertsona bakoitzari bere osasunari buruzko erabakiak hartzea behartzen diotenak, bere borondatearen aurka. Beraz, pasaporte berdeak, besteak beste, ezin du lekuri izan zentzu horretan.

-Haur eta gazteentzat erabateko babesa bermatzea, gure gizateriaren baliorik preziatuena baitira. Une honetan, eta ebidentzia zientifiko nahikoaren ondoren, uste dugu ikastetxeetan pandemiaren aurreko egoerara itzultzea erabakirik onena dela, osasun arloan nahiz bio-psikosozialean premiazkoa baita, inolako diskriminaziorik eta segregaziorik gabe. Halaber, etorkizunari begira, ezin dira errepikatu zuzenak eta egiaztatuak ez diren neurriak. Horretarako, ikerketa serioak kontuan hartzea eta dagokion denbora errespetatzea ezinbestekoa izango da ume eta gazteentzako kaltegarria izan daitekeen edozein erabaki hartu baino lehen.

-Kalitatezko osasun publikoaren defentsa aldarrikatzea. Urteak daramatzagu osasun-sisteman murrizketak eta degradazioa jasaten, hori guztia, krisi honetan nabarmenagoa izan da.

Plataforma horrek antolatuta, Jose R. Loayssak *Covid-19: fracaso sanitario, manipulación política y desastre socioeconómico* hitzaldia emango du ekainaren 20an, 19:00etan Gabari gunere irekian.



AGENDA

EKAINA

4 - Euskal Herria Mendi Erronka lasterketa.

9 - Ogi tailerra, Lezaetako okindegian, 10:00etan. Izen-ematea eta informazioa: 626138405 - 948113125

12 - Printzan: Gasteizko Etxebizitza Sindikatuaren dokumentala: *Miseria kudeatzen: Alokabide, vivienda social antiproletaria*, 17:00etan.

17 - *Bidaide* antzezlan, Metrokoadroka konpainiaren eskutik; Geuretik Sortuak egitasmoaren barruan. Beteluko Zigari elkarte, 19:00etan.

17-18 - Larraungo eguna (egitaraua atzean).

20 - Jose R. Loayssaren hitzaldia: *Covid-19: fracaso sanitario, manipulación política y desastre socioeconómico*. 19:00etan, Gabari gunere irekian.

25 - Printzaren hirugarren urteurrena:

14:00 bertso-bazkaria: Erika Lagoma eta Aitor Bizkarra (txartelak Amairu tabernan eskuragarri)

18:00 kontzertuak: Haizkan eta Rodeo

28-3 - Beteluko festak (egitaraua atzean).

larraun.info



Printza Facebooken:



Printza Twitterren:



SAN JOAN FESTAK

Pandemiako garai latzen ostean, Lekunberriko Udalak San Joan festa bereziak antolatu nahi izan ditu, herritarrei eskerrak emateko eta egoera arindu dela ospatzeko. Oharra: maiatzaren 31n egin zuten bilera irekia egitarau osoa ontzeko.

23 - Osteguna

18:00etan: Pilota jaialdia. Bengoetxea VI-Gurrea, Astiz-Ladis Galarza eta Iñaki Galarza-Miguel Lazkoz eta Oinatz Iriarte-Lenitz Galarza.

Iluntzean, San Joan suak.

24 - Ostirala

Jubilatuak bazkaria Ayestaranen.

Bazkari herrikoia. Ondoren, bingoa.

Gauean, musika.

25 - Larunbata

12:00etan: Kulturartekotasun festa.

Arratsaldean, garagardo festa. Musika egongo da egun osoan.

26 - Igandea

11:30ean: Larraungo eta Lekunberriko erraldoiak eta kilikiak.

13:00etan: Trapu Zaharra konpainiaren antzerki emanaldia.

17:00etan: Erremonte jaialdia.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

Errotaldea 19,
Lekunberri
www.martilloxiki.com
679 938 016
MARTILLO XIKI
PERKUSIO ESKOLA

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA
URZUBI S.A.
Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20
Lekunberri
urzubi@hotmail.com

TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Lontxo Otamendi Artola
Atallu - Araitz

SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...
k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

ekin
rotulación
948 85 32 79

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

LARRAUNGO EGUNA

EKAINAK 17, OSTIRALA – ODERITZ

19:00- Hitzaldia: "Gaztetxeen historia aztergai"

21:00- Afari autogestionatua

23:00- Kontzertuak: Burutik eta Patxuko Nice taldea

EKAINAK 18, LARUNBATA – LEKUNBERRI

Goizean txistulariak herrietatik.

11:00- Pilota, eskolako umeen partidak trinketea

12:00- Musika eskolaren emanaldia, elizan

13:00- Tirikitrauki dantza taldea, herriko plazan

14:00- Bazkaria bertsolariekin frontoian: Julio Soto eta Saray Robles. Txartelak AEKn eta Mitxausenean eskuragarri

16:30- Haurrentzako puzgarriak eta tailerrak frontoiko plazan

17:30- Gazte eta helduentzako jolasak eta munduko edarien dastaketa

19:00- Trikiteens taldearen emanaldia frontoian

BETELUKO FESTAK

ASTEARTEA, EKAINAK 28

- 19:00 Txupinazoa
- 19:30 Frontenis finala
- 21:00 Herri afarie
- 00:30 TRIKIDANTZ
- 02:30 Kulero-kantzontzilo lasterketa

ASTEAZKENA, EKAINAK 29, SAN PEDRO EGUNA

- 7:00 Auroroak
- 8:00 Diana
- 12:00 Meza
- 12:45 Umeen ongi etorria (2019-2022)
- 13: 00 Pelota finala
- 18:00 Kantu gira
- 19:30 Irurtzungo dantzariak
- Jarraian Ingurutxoa eta gazta zaharra
- 20:30 OIXANI
- 00:30 OIXANI

OSTEGUNA, EKAINAK 30, UMEEN EGUNA

- 14:00 Jubilatuz bazkaria elkartean
- 17:30 Ume jokuk eta puzgarriak
- 18:00 Mus eta partxis txapelketa
- 19:30 Araitz Beteluko umeak dantzan

OSTIRALA, UZTAILAK 1

- 18: 00 Kronoeskalada, San Donatora
- 19:30 Patata tortilla lehiaketa
- 19:30 Ardo txuri dastaketa eta pintxoak
- 21:30 Zezen suzkoa
- 00:30 LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS
- 02:30 DJ ANTXON
- 07:00 Gaupaseroen argazkia

LARUNBATA, UZTAILAK 2

- 12:00 Futbol partidue
- 14:30 Paellada
- 18:00 ELEKTROT XUFLA elektrotxaranga
- 20:30 GABEZIN taldea
- 00:30 GABEZIN taldea
- 02:30 DJ SEVILLANO

IGANDEA, UZTAILAK 3

- 13:00 Umeen pilota finala
- 17:30 Atxur eta zartari jaurtiketa
- 18:30 Euskal duatloia: Eneko Saralegi, Ugaitz Mugerza eta Julen Kañamares
- 19:30 TXAMUKOS mariatxiak
- Deskansoan, sari banaketa
- 21.00 Herri afaria eta traka